

7» Ekinen aurkako sarekadan atxilotutako zortzi lagun bermepean libre utzi dituzte

11» Sexu jazarpena bi urteko espetxearekin zigortzea onartu du Frantziako Asanbleak

Katalunia → Finantzaketa eredu berria

%76,5

■ **Sistema berriaren alde.** Alderdi politiko eta gizarte eragilerik gehienek ez ezik, Kataluniako herritarrek ere nahi dute finantzaketa eredu berri bat. Centre d'Estudis d'Opinioren inkesta baten arabera, katalanen %76,5ek nahiago lukete Generalitatearen arduratzea zergak biltzeaz.

ERC: «Eredu honekin, ez lukete esku hartu beharrik»

Diputatu ez denez, ikusleen artean jarraitu du eztabaida Oriol Junqueras ERCko buruak. Han esan duenez, «gaur onartu dugun eredu duela 20 urte onartu izan bagenu —Euskal Herrian edo Nafarroan bezala—, inork ez luke esku hartu beharrik izango, ez legokeela horretarako beharrik».

PSOEk uste du Kataluniaren eskaera ez dela «solidarioa»

PSCk eskaera batzuekin bat egin arren, Kataluniako Parlamentuaren eskaera begi txarrez hartu du PSOEk. «Iruditzen zait Masen jarrera ez dela solidarioa; batez ere, une hauetan, Espainian gertatzen ari dena gertatzen ari dena honetan», esan du Elena Valenzuela PSOEko idazkari nagusiaren albokoak.



Ez dut onartuko kanpoko inor etortzea Generalitatearen agintzera. Aurretik gauza asko pasatuko dira»

ARTUR MAS
Kataluniako Generalitateko lehendakaria

lehen sei hilabeteotan, eta 10.000 milioira ez direla iritsi Andaluzia edo Madril. «Lehiatzeko gaitasuna, hortaz, hemen dago».

Beste bi argudio ere eman dituzte Masek. Batetik, Estatuak eskuduntzak deszentralizatu dituela, baina diru sarrerak ez. «Hori ez da errentagarria». Bestetik, Kataluniatik Espainiaren erkidegoetara joan den diruak ez duela haien egoera hobetu. «Zerbitzu publiko batzuk berdindu dira, baina haien gaitasun produktiboa ez da hobetu», esan du.

Independentzia mintzagai

Oposizioko diputatuaren agerraldietan negoziazioen ondorioei buruzko gogoeta nagusitu da. Rocio Martínez-Sampere PSCkoak ziurtatu du Kataluniako Estatutuak ez duela kontzertu ekonomikoa



Katalanak hobeto biziko lirake sortzen dituzten baliabideak erabiltzerik izango balute»

ARTUR MAS
Generalitateko lehendakaria

«Kataluniaren independentziaren ari bazarete, ez iezaguzue itxaron»

ROCIO MARTÍNEZ-SAMPERE
PSCko diputatua

onartzen, eta, hortaz, proposamenak «hutsune juridikora» eramango du. «Nahi baduzue estatuaren egitura atzeko atetik eta bermerik gabe aldatu [...] Kataluniaren independentziaren ari bazarete, ez iezaguzue itxaron».

Independentzia da, hain zuzen ere, ERCren helburua. Horregatik, Espainiak proposamena arbuaiatz gero «Kataluniarentzat estatu propioa aldarrikatzeko urratsa» egiteko eskatu dio CiUri Joan Puigercos errepublikanoak.

Beste talde independentistak, SIk, kontrako botoa eman du, uste duelako alferrikakoa dela Espainiaren barruan Kataluniak finantzaketa sistema bidezkoa izatea. «Ergelarena» ez egiteko eskatu du Uriel Bertranek, eta zuzenean independentzia aldarrikatzeko, «horixe baita irtenbide bakarra».

Ferran Requejo ◉ Politika Zientzietako katedraduna

Zerga itunak ez du aurrera egingo, Requejoren esanetan, baina Espainiako Gobernuaren ezetzak Kataluniara bestelako etorkizun bat ekarriko du, autodeterminazioaren bidetik.

«Herritarrak ohartu dira ituna posible ez bada hausturara jo behar dela»

Elixabet Epelde

Kataluniako Legebiltzarrean CiUk, ICVk eta ERCek gobernuaren zerga ituna onartu izanak herrialdea itzuli ezinezko bidean sartu duela sinetsita dago Ferran Requejo (Bartzelona, 1951) Pompeu Fabra Unibertsitateko Politika Zientzietako irakasleak. Espainiako Gobernuak proposamena atzera botako duela ziurtatzen du, baina, CiUk ezezkoaren inguruan autodeterminazioaren aldeko hautua egingo duelakoan dago. Izan ere, ezer ez egitearen aukera amaituta dago, Requejoren hitzetan.

PSCko hauteslerik gehienak zerga itunaren alde egonda ere, alderdiak ez du babestu Kataluniak zerga sistema propioa izateko proposamena. Zein izango da ezezkoagatik ordaindu beharko duen prezioa?

PSCk aukera on bat galdu du, PSOEtik aldentu eta alderdiaren profil katalanista indartzeko. PSC krisi sakonean murgilduta dago, gainera: ez du diskurtsorik, ez proiekturik eta ez lidergorik ere. Beti PSOEren mesedetan jardun izanak maldan behera jarri du PSC. Inkesta guztien arabera, beherakada nabarmena jasango du bozetan, eta legebiltzarreko bigarren postua ere galtzear egon daiteke. Diskurtsioa aldatzen ez badu, garesti ordainduko du.

PSCko sektore katalanista, beraz, bigarren mailan geratu da, beste behin.

Nik esango nuke PSCren barruan uste honetan ez dagoela sektore katalanistarik. Ez daude antolatuta, ez dute jarrera irmorik, ezta proiekturik ere. Ez dira alderdiaren agintaritzak hartzeko prestatzen ari.

Dena den, ez da espero zerga itunak



FERRAN REQUEJO

aurrera egiterik. Beraz, zer lortu nahi du gobernuak hilda jaito den proiektu horrekin?

CiUren asmoa da lehendabiziko aldiz finantza eredu aldatzea proposatzea. Bost finantzaketa eredu eduki ditugu, eta horietako bakar batek ere ez du konpondu gaur egun pairatzen ari garen arazo endemikoa. Kataluniaren ogasun propioa eskatzen dator. Eta, beste behin, Kataluniako Estatutuarekin gertatu bezala, atea ixten badigute, beste bide batzuk proposatuko ditu CiUk, oraindik zehaztu gabekoak.

Eta, ezezkoaren inguruan, zein bideri jarrai diezaiokete CiUk?

Lehenik eta behin, aliantzak aldatzea. PPrekin orain arte izan duen harremana hautsi, eta jokaleku apurtzaileago batera jo dezake, estatu propio bat osatzeko ideien ildotik. Hauteskundeak deitzea litzateke beste bide bat, eta, gaur, —atzo— zerga ituna babestu duten alderdiekin gobernu bat osatzea: ERCekin eta ICVrekin. Azken alderdi horrekin elkartzea, dena den, ez da oso gerta-

garria, ez baitute CiUren gizarte politikekin zerikusirik izan nahi. Edozein modutara, gobernuak trantsizioerako bidea hartuko duela uste dut, EB Europako Batasunaren barruan estatu propio bat sortzeko haustura horretara bideratuta.

CiUk autodeterminazioaren aldeko bidea gidatuko duela uste duzu?

Zerbait egin beharra daukate, hori ziur. Ezin dute datozen hauteskundeetara orain arteko mezu berdinarekin aurkeztu. Zerga itunaren filma ikusi duguz; beraz, beste zerbait eskaini behar digute. Independentziaren hitz egin gabe, estatu osorako autogobernu bat proposa dezake EBren baitan. Autodeterminazioaren bidean, proposamen ambiguoago bat, alegia. Baina joera argia da, norabide aldatzea hor dago. Ez da izango, ziurrenik, 180 graduko biraketa bat, baina bai norabide aldatzea bat, orain arte egin dutenarekin alderatuta.

PPk adierazi du herritarren frustrazioa sortuko duela zerga itunak aurrera ez egiteak. Ituna babestu

duten alderdiek, hain justu, ez al dute frustrazioa sortu nahi?

Ez, nik uste dut zerga ituna aurrera eramateko sortu dutela. Hemen, arazo estruktural lotsagarri bat pairatzen dugu, zerga espoliozioa, eta arazo hori bukatzeko proposamena da. Noski, alderdiek jakin badakite oso zaila izango dela Espainiak hori onartzea. Beraz, bide horrek huts egiten badu, eta nik uste dut huts egingo duela, gobernuari arazozi gehiago ematen dizkio bere jarrera legitimitateko nazioartearen aurrean. Zerbait egin beharra dago, ezer ez egitea ere erabaki bat baita. Iraganen porrota eragin duen erabakia da, hain zuzen ere.

Zerga ituna independentziarako lehen urratsa dela esan du Independentziaren Aldeko Herrien Elkarteak. Proposamena onartuz gero, ordea, ez ote du kontrako efektua izango?

Bai, zalantzarik gabe. PPK baietz esango balu, independentisten kopurua jaitsi egingo litzateke. Beraz, ez litzateke independentziarako lehen urratsa, guztiz aurkakoa baizik. Espero bezala ezetz esaten badute, independentisten kopurua gora egingo du.

Azken hilabeteetan, hain zuzen, gora egin du independentziaren aldeko jarrekerik Katalunian. Zerk eragin du gorakada?

Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako Estatutuari ezetza eman izanak ekarri du paradigma aldatzea, hein handi batean, jendeak ikusi duelako itunaren bidetik Espainiako alderdiekin, PPrekin nahiz PSOErekin, ez dagoela irtenbide konstituzionalik. Herritarrak ohartu dira, ituna posible ez bada hausturara jo behar dela, gauden bezala Katalunian nortasuna desegiten ari delako.